

Luis Liz Marzán Zientzien Errege Akademiako akademiko berria

CIC biomaGUNEko zuzendari zientifiko eta Ikerbasque irakasle Liz Marzánek akademiko osoaren kargua eskuratzeko harrera-ekitaldia gaur izango da 18:30ean

Ekitaldian, Liz Marzanez nanomaterial plasmonikoei, nanomedikuntzari eta XXI. mendeko diziplina anitzeko zientziari buruzko hitzaldia irakurriko du

Donostian, 2021eko urriaren 27an. CIC biomaGUNE ikerketa kooperatiboko zentroko zuzendari zientifiko [Luis Liz Marzán](#) Zientzia Zehatz, Fisiko eta Naturalen Errege Akademiako kide izendatuko dute gaur, hilak 27, 18:30ean, Madrilen antolatutako ekitaldi solemne batean. Ekitaldia zuzenean emango dute Zientzien Errege Akademiaren ([RACen](#)) YouTubeko kanalean. Ikerbasque irakasleak kargua hartzeko egingo duen hitzaldia nanomaterial plasmonikoei, nanomedikuntzari eta XXI. mendeko diziplina anitzeko zientziari buruzkoa izango da (“Nanomateriales plasmónicos y nanomedicina. Ciencia multidisciplinar en el siglo XXI”), eta RACen izenean [Avelino Corma Canósek](#) erantzungo dio —Teknologia Kimikoaren Institutuko zuzendaria (Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenaren (CSIC) eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoaren arteko zentro mistoa)—. Liz Marzánek 31 zenbakiko dominaz eta Zientzien Errege Akademiako kide oso gisa akreditatzen duen diplomaz hartuko du bere kargua.

Luis Liz Marzán, zeina Bioingeniaritzako, Biomaterialetako eta Nanomedikuntzako Sareko Ikerketa Biomedikoaren Zentroko ikertzaile nagusi ere baita ([CIBER-BBN](#)), pozik dago izendapenarekin: “Lehenik eta behin, RACeko akademiko izateko hautatua izateak Espainian zientzialari batek lortu nahi izan dezakeen aintzatespenik handiena da beharbada”. Akademikoez bere proposatu eta eztabaidatzen dute zer zientzialari berri sar daitekeen instituzioan, eta zientzialarien ibilbide zientifiko osoa baloratzen dute, zeinak bikaina eta aintzatespen handikoa izan behar baitu; horrek esan nahi du “zientzialari oso nabarmenek erabaki dutela nire jardura zientifikoak (hobeto esanda, azken 25 urteotan zuzendu ditudan taldeen jardura zientifikoak) hemengo zientziaren ordezkari izateko maila eta eragin egokiak dituela. Erakunde honetako kide izateak aukera emango dit eztabaida sakonetan parte hartzeko, eta, agian, hurrengo urteetako politika zientifikoarentzat garrantzitsuak diren erabakietan eragiteko”, erantsi du.

Estatuko oinarri sendoeneko zientzia-erakunde entzutetsuenetako bat da RAC. Gaur egun ezagutzen den moduan 1847an sortu zen arren, jatorria 1582an dago. Erakundearen xede nagusia da Matematika, Fisika, Kimika, Geologia eta Biologia Zientzien eta horien aplikazioen ikasketak eta ikerketak sustatzea, baita haien ezagutza zabaltzea ere. Gaur egun, gainera, sortzen eta garatzen doazen zientzia-diziplina guztiak betetzen saiatzen dira. Akademikoen kopurua mugatua dago erakundearen estatutuetan, eta duela gutxi 54tik 72ra handitu da, esparru horietarako guztietarako. Horrek esan nahi du sarrera oso mugatua dela, eta plaza hutsak geratzen direnean barne-hautaketa zorrotz baten bidez egiten dela hautaketa. “Esango nuke ‘erreferentziako zientzialari-talde’ bateko kide izatea esan nahi duela, eta hori harro egoteko

modukoa da. Baina erantzukizun handia ere sentitzen dut; neure gain hartzen dut, eta ahal dudan neurrian nire ekarpenak egiten saiatuko naiz”.

Luis Liz Marzáni buruz

Luis Liz Marzán, kimikan doktore, Koloideen Zientzian espezializatu zen. Nanozientzia eta nanomedikuntza izan ditu ardatz haren ikerketak, eta, zehazki, propietate plasmonikoak dituzten nanopartikula metalikoetan eta eremu biomedikoan dituzten aplikazioetan jarri du arreta. Gaur egun, bere belaunaldiko zientzialari entzutetsuenetako bat da, bere alorrean ekarpen garrantzitsu asko egin baititu. Nazioartean eragina duten aldizkarietan 500 lan baino gehiago argitaratu ditu, bederatzi patenteren asmatzaileetako bat da, eta lau libururen editore. Bere argitalpenek eragin handia izan dutenez, *ISI Highly Cited Researcher* izendatu dute zazpi urtez jarraian (2014-2020). Liz Marzánen lanek 50.000 aipamen baino gehiago izan dituzte; 120 inguruko H indizea lortu du (WOS datuak), eta 90 argitalpen baino gehiago sailkatu ditu *Essential Science Indicators*-ek *highly cited papers* gisa (alegia, asko aipatzen diren artikuluko zientifiko gisa).

Liz Marzánek Santiagoko Unibertsitatean abiarazi zuen bere ibilbidea, eta, doktoratu ostean Utrecheko Unibertsitatean bi urte ikertzen eman ondoren, Vigoko Unibertsitatean hasi zen lanean, 1995ean. 2012tik, CIC biomaGUNEko zientzia-zuzendaria da, eta Bionanoplasmonikako Laborategia zuzentzen du. Ikerbasque irakaslea da. Halaber, Bioingeniaritzako, Biomaterialetako eta Nanomedikuntzako Sareko Ikerketa Biomedikoaren Zentroko (CIBER-BBN) nodo bat zuzentzen du.

ERC Advanced Grants entzutetsuak bi aldiz segidan eskuratu dituen Europako ikertzaile gutxietako bat da (2012-2017; 2018-2023). Biak nanomaterialen aplikazio biomedikoekin lotuta daude. Gainera, hainbat argitalpen-batzordetako kide da (*Scienceko Board of Reviewing Editors* gisa aritzen den espainiar bakarra da) eta *American Chemical Society*-ren zenbait aldizkariren editore izan da. Liz Marzán irakaslea *Royal Society of Chemistry*ko (Erresuma Batua) eta *Optical Society of America*ko (AEB) kide da (*Fellow*). Galiziako eta Granadako zientzia-akademietako eta *European Academy of Sciences*eko urgazle. Hainbat sari jaso ditu, besteak beste, *Humboldt Research Award*, Espainiako Kimikako Errege Akademiaren domina, *Blaise Pascal Medal in Materials Science*, Jaime I Erregearen Saria, *European Colloid and Interface Society*ko *Rhodia Prize* eta Kimika Zientzia eta Teknologiako Enrique Moles Sari Nazionala, Ikerketa Biomedikoko Lilly Fundazioaren Saria eta Frantziako Kimika Elkartean (SCF) “Miguel Catalán-Paul Sabatier” sari frantziar-espainiarra.

CIC biomaGUNEri buruz

CIC biomaGUNE biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan, eta arreta berezia jartzen du nanoegitura biologikoen eskala molekularreko propietateetan, bai eta haien aplikazio biomedikoetan ere 2018an, “María de Maeztu” Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.